

NASTE BORRASTE

Telefonoan



—Trin, trin, trin...

D. Zeledonio, gizon aberats ta jakintsua, baño ikusmen edo bista txarrekoa, eta buruan iritzi eta idea asko ditua. Antxe zegon lan ta lan bere liburuakin urrutizkiñatik ots egin dutenean. Bad joa ito bearrean eta galde-tzen diote:

—D. Zeledonio! Zer modu? Ez nauzu ezagutzen?

—Ez, antiojuak (betaurrekoak) mañañean utzi ditut eta banoa eske...
D. Zeledoniok konturatu ta bere artean: ederra egin det oraingoa!

Jaio zera, ilko zera.

PERU TA PATXI

Peruk.—Nik ez diat sinisten ikusi ez ba diat.

Patxi.— Ta osasunean zer modu abil?

Peruk.—Estomagoko miñakin.

Patxi.—Ta nola moldatu aiz miña ikusteko, antiojuakin edo...? Ta orain nora oa?

Peruk.—Ni Bilbaora; oraindik ez diat ikusi ta. Asko ikusteko omen ziaok an. Agur, Patxi... Trena artu bear diat... Pausu polliki ibilli ditu Peruk eta Patxi: Peru, Bilbao ez ikusi eta badala

sinisten dek, oñazea ez ekusi ba dala sinisten dek. Ez geiago niri esan ikusten ez dekana siñisten ez dekala... Peru, pañueloa sakeletik, patrikaratik, erori zaik...!

Peruk atzera begiratzen du eta...

Patxi, ikusi ez duana «sinisten ez duanaz» ajajaka...

Ala ere **Peruk**, ikusi etzuan Bilbao bazala sinistea, etzuan utzi eta trena atzera korrika eta erdi aserreturik joan zan.

ASMAKIZUNAK.—Kutxa txikia, itxura onekoa; zurgin (arotz) onenak ezin egiñekoa; Jaungoikoak bakarrik egiñ al izanekoa. Zer da?

Ale (pikor) ez aundia eta sudur txiki txikia. Zer da?

Benebillen benebillen; nai gabe arkitu nuen. Asmatu ezetz?

Egunero jaten ta beñere aspertzen ez. Zer ote?

Lengo asmakizunak.—Lenbizikoa, ezkurra. Bigarrena, masusta (maxurka.) Irugarrena, arto-burua.